



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2014ko apirilaren 10a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:05 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:10

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Angel del Hoyo Bravo, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Jon Redondo Lertxundi zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri, herritik kanpo dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2013ko abenduaren 19ko ezohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Honako kreditua aldatzeko espedienteen berri ematea: 6/2013, kreditua gehitzeko modalitatean; 8/2013, kredituak gaitzeko modalitatean; eta 1/2014, kreditua sartzeko modalitatean.
- 3.- Dagozkion udalbatzarraren erabakiak hartzea, egoki bada, honako gaiari buruz: Oriko Udalaren eta LURRA, PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL entitate merkantilaren artean sinatutako Oriko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintza Jarduketa garatzeko hitzarmen urbanistikoa ez betetzea.
- 4.- Onartzea, egoki bada, urte anitzeko kredituak eta beren finantzazioa.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 2/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 3/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua gaitzeko modalitatean egina dago.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 4/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua gaitzeko modalitatean egina dago.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 5/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 9.- Onartzea, egoki bada, Oriko Udalaren eta Oriko Herri Ikastola kooperatiba elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena.
- 10.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2013KO ABENDUAREN 19KO EZOHICO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, Orain taldearen izenean, eta adierazten du aktaren zirriborroaren gai-zerrendako 6. puntuan ez dagoela ondo jasota Orain taldearen botoaren arrazoia. Bildu talde politikoak proposamena aurkeztu zuen, Aiako Udalarari zuzendua, Orioko Danbolin musika eskolaren finantzazioari buruz, eta Orainek kontrako botoa eman zion proposamenari honako arrazoiagatik: Orain taldea ez zegoen ados Aian bizi diren ikasleen kostuak bi udalen artean erdibana ordaintzearekin; horren ordez, proposatzen zuen Udal bakoitzak bere herriko ikasleen gastuak ordaintzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Jose Angel Iparragirre zinegotziak egin duen oharra ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA 2013ko abenduaren 19ko ezohiko udalbatzarraren akta, Jose Angel Iparragirre zinegotziak (Orain) udalbatzar honetan egin dion oharra sartuta.

2.- HONAKO KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEEN BERRI EMATEA: 6/2013, KREDITUA GEHITZEKO MODALITATEAN; 8/2013, KREDITUAK GAITZEKO MODALITATEAN; ETA 1/2014, KREDITUA SARTZEKO MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 6/2013 kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 120.167,04 eurokoa da eta azaroaren 25eko 518/2013 alkatearen dekretuz onartu zen; 8/2013 kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 2.999 eurokoa da eta abenduaren 31ko 566/2013 alkatearen dekretuz onartu zen; 1/2014 kreditua aldatzeko espedientearen kopurua 264.145,36 eurokoa da eta otsailaren 3ko 65/2014 alkatearen dekretuz onartu zen.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- DAGOZKION UDALBATZARRAREN ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, HONAKO GAIARI BURUZ: ORIOKO UDALAREN ETA LURRA, PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL ENTITATE MERKANTILAREN ARTEAN SINATUTAKO ORIOKO KASKO HISTORIKOA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN 3. HIRIGINTZA JARDUKETA GARATZEKO HITZARMEN URBANISTIKOA EZ BETETZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Goian aipatutako hitzarmen urbanistikoaren 6. klausulak honakoa dio: Orioko Udalaren aldeko saldoa 354.025,14 eurokoa da, kontzeptu guztiak barne, eta era honetara ordainduko zaio Udalarari: eremu horretan eraikitzeak diren etxebizitzetako



bi jasoko ditu Udalak eskritura publiko bidez, 24 hilabeteko epean, etxebizitzak eraikitze baimena ematen denetik kontatzen hasita; etxebizitza horiek emango direla bermatu beharko da, goian aipatutako kopuru osoa estaltzen duten banku-abalak Udalari aurkeztuz.

Goian aipatutako hitzarmen urbanistikoa 2010eko ekainaren 4an sinatu zuten Orioko Udalak eta LURRA PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL entitate merkantilak.

Eremu horretan etxebizitzak eraikitze baimena 2011ko irailaren 2ko 332/2011 alkatearen dekretuz eman zuen Udalak.

Udalbatzarraren erabaki hau hartzeko egunean etxebizitza horiek eraikitze lanak geldirik daude eta aspaldi pasa zen bi etxebizitza Orioko Udalari entregatzeko epea.

CAJA RURAL DE NAVARRA kooperatiba elkarteak idatzia aurkeztu du udal bulegoetan (2013ko abenduaren 26ko data, 1834. zenbakia); idatzi horren bidez, batetik, Udalari eskatzen dio Orioko Udalak LURRA, PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL entitate merkantilaria 2011ko irailaren 2an emandako Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintza Jarduketaren eremuan 25 etxebizitza, trastelekuak eta garajeak eraikitze udal obra-baimena aldatzea; eta, bestetik, Udalari jakinarazten dio obraren gaur egungo jabea PROENOR PROMOCION ESTABLE DEL NORTE SA enpresa dela (enpresa hori aipatutako partzelaren jabe egin da LURRA PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL entitateak CAJA RURAL DE NAVARRAarekin zeuzkan zorren ordain gisa; horrela adierazita dago M. Luisa Salinas Alamán Iruñeko notarioaren aurrean 2013ko urriaren 31n sinatutako salerosketa eskritura publikoan).

Kontuan hartuta ez dela bete Orioko Udalaren eta LURRA, PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL entitate merkantilaren artean sinatutako Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintza Jarduketa garatzeko hitzarmen urbanistikoaren 6. klausula, Orioko Udalari interesatzen zaio, une honetan, dirutan jasotzea goian aipatutako bi etxebizitza horiei dagokien kopurua (354.025,14 euro); horretarako, alde aurretik egingo dio horren errekerimendua partzelaren jabeari eta ohartaraziko dio, ez badu diru-kopuru hori ordaintzen hamabost laneguneko epean, Udalak exekutatu egingo dituela udal diruzaintzan depositatuta dauden banku-abalak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2014ko martxoaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ERREKERIMENDUA EGITEA PROENOR PROMOCION ESTABLE DEL NORTE SA entitate merkantilaria, hamabost laneguneko epean, udalbatzarraren erabaki honen jakinarazpena jaso ondoren kontatzen hasita, Orioko Udalari 354.025,14 euroko diru-kopurua ordaintzeko, erabaki honen azalpenean agertutako arrazoiengatik; PROENOR PROMOCION ESTABLE DEL NORTE SAr, bestalde, honako hau ohartarazten zaio: ez



badu diru-kopuru hori epe barruan ordaintzen, Udalak exekutatu egingo dituela udal diruzaintzan depositatuta dauden banku-abalak.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, URTE ANITZEKO KREDITUAK ETA BEREN FINANTZAZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Urte anitzeko kredituak bi dira: 1/2014 zenbakiduna, 77.031,11 eurokoa, Orioko Antillako hondartza handian kokatutako lurak 'casas baratas' izeneko etxebizitza multzoa eraikitze nahitaez desjabetzeko ordaindu beharreko justiprezioa ordaintzeko; eta 2/2014 zenbakiduna, 150.000 eurokoa, udal ludoteka baten exekuzio-lanak finantzatzeko.

1/2014 urte anitzeko kreditua, 77.031,11 eurokoa, honela finantzatuko da, urtez urte:

- 2014. urtean: 25.500 euro Orioko Udalaren eta LURRA, PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL entitate merkantilaren artean sinatutako Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintza Jarduketa garatzeko hitzarmen urbanistikoa ez betetzeagatik sortutako diru-sarreraren kargura finantzatuko dira.
- 2015. urtean: 25.500 euro Udalaren 2015eko aurrekontu propioaren kargura finantzatuko dira.
- 2016. urtean: 26.031,11 euro, Udalaren 2016ko aurrekontu propioaren kargura finantzatuko dira.

2/2014 urte anitzeko kreditua, 150.000 eurokoa, honela finantzatuko da, urtez urte:

- 2014. urtean: 90.000 euro Orioko Udalaren eta LURRA, PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL entitate merkantilaren artean sinatutako Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintza Jarduketa garatzeko hitzarmen urbanistikoa ez betetzeagatik sortutako diru-sarreraren kargura finantzatuko dira.
- 2015. urtean: 60.000 euro Orioko Udalaren eta LURRA, PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL entitate merkantilaren artean sinatutako Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintza Jarduketa garatzeko hitzarmen urbanistikoa ez betetzeagatik sortutako diru-sarreraren kargura finantzatuko dira.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko apirilaren 7an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**



[Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA 1/2014 urte anitzeko kreditua, 77.031,11 eurokoa, Orioko Antillako hondartza handian kokatutako lurak 'casas baratas' izeneko etxebizitza multzoa eraikitze nahitaez desjabetzeko ordaindu beharreko justiprezioa ordaintzeko, eta **ONARTZEA** kreditu hori goian azalduta dagoen bezala finantzatzea.

Emandako botoa azaltzeko, Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza, Orain talde politikoaren izenean, eta honako hau adierazten du, hitzez hitz:

1954. urtetik Udalak zor bat zuen Arrue ahizpekin, “justiprecio en el marco de expropiación forzosa de terrenos situados en la playa Grande de Antilla de Orio, con destino a la construcción de un grupo de viviendas protegidas conocidas coloquialmente como ‘Casas Baratas’”. Urte askoren ondoren, eskubide horiek Grupo Eibarri pasa zizkieten.

1954eko zor bat ordaintzea ez zaigu bidezkoa iruditzen. Zergatik?

Grupo Eibar eta Udalak harreman estua izan dute (hondartzako urbanizazio guztia, esate baterako) eta aurreko gobernuek ez dute lortu zor hori bertan behera utzi edo kitatzerik.

Legealdi honetan ere aukerak izan dira kitatzeko. Adibidez, Munto eremuan musutruk emandako esponjamiento. Udalak zor horren berri bazuen; ez da ordainketa eskatzen den lehen aldia.

Ez zaigu bidezkoa iruditzen 2014ean, 60 urte eta qero, 1954eko zor bat ordaintzea eta are eta gehiago harreman guzti hori izan ostean. Bi alderdi nagusiek, oster, EAJ eta BILDUK 77.031,11€ko ordainketa egitea erabaki dute. Denbora luzea pasa da hau guztia konpontzeko eta ez dute lortu. Orain ORIOko herriak ordaindu behar du?

Era berean, udalbatzarrak, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko apirilaren 7an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ), Etxeberria (EAJ), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu) eta Dorronsoro (Bildu), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:



ONARTZEA 2/2014 urte anitzeko kreditua, 150.000 eurokoa, udal ludoteka baten exekuzio-lanak finantzatzeko, eta **ONARTZEA** kreditu hori goian azalduta dagoen bezala finantzatzea.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 2/2014 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrek gaiaren berri jakiten du. 2/2014 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 46.545 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko apirilaren 7an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2014ko aurrekontuari dagokion 2/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 46.545 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.



Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 3/2014 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA GAITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 3/2014 espedientea kreditua gaitzeko modalitatean egin dago eta 55.500 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko apirilaren 7an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberría (EAJ), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2014ko aurrekontuari dagokion 3/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gaitzeko modalitatean egin dago eta 55.500 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.



Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza, Orain taldearen izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela, udal hilerrian inbertsio obrak egitearen alde daudelako, baina ez daudelako ados Grupo Eibar enpresari Orioko Antillako hondartza handian kokatutako lurak 'casas baratas' izeneko etxebizitza multzoa eraikitzeke nahitaez desjabetzeko ordaindu beharreko justiprezioa ordaintzearekin.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 4/2014 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA GAITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 4/2014 espedientea kreditua gaitzeko modalitatean egin dago eta 140.000 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko apirilaren 7an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ), Etxeberría (EAJ), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu) eta Dorronsoro (Bildu), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2014ko aurrekontuari dagokion 4/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gaitzeko modalitatean egin dago eta 140.000 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteke aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.



d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 5/2014 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 5/2013 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 210.000 euroko zenbatekoa du.

Udal idazkari-kontu-hartzaileak hartzen du hitza eta bertaratuei adierazten die, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan ezarritakoa betez, 5/2014 kreditua aldatzeko espedienteak ez duela betetzen aurrekontu-egonkortasunaren helburua.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko apirilaren 7an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2014ko aurrekontuari dagokion 5/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 210.000 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailetza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.



c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Jon Agirresarobe zinegotziak hartzen du hitza, Bilduren izenean, bere talde politikoak 4., 5., 6., 7. eta 8. puntuetan emandako botoa azaltzeko, eta honako hau adierazten du, hitzez hitz:

Lehentasunak eta remanentea

Kreditu aldaketa hauek guztiekin bi aktuazio nagusi ditugu mahai gainean: ludoteka eta Benta-bidearen konponketa. Orioko Bilduk garbi du zein den lehentasuna: erremediorik gabe egin beharrekoa da Benta bidearen konponketa. Altxortegia erabili gabe egitea proposatu dugu azken ogasun batzordean, baina ez da adostasunik lortu. Bi galdera ditugu: zein irizpiderekin markatzen dira lehentasunak? Eta altxortegia ez erabiltzeko proposamena egin eta atzera bota denez, remanentearen erabileraz kezkatuta zaudetenak zer duzue esateko? Ez dugu Benta Bidea finantzatzeko beste proposamenik entzun, lehendik landuta eta adostatuta dauden aurrekontuak eta proiektuak blokeatzea ez bada. Ba, martxan dira gehienak.

Bentako bidea

Urgentzia da Benta bidea konpontzea. Bizilagunek errepidean atzera-aurrera ibili behar dute, negozioak ere badaude tartean eta turista dezente ibiltzen da errepidean. Horregatik da urgentzia, arriskuan baitabiltza bizilagunak, egunero arriskuan. 210.000 euro behar dira bi errepide zati konpontzeko. Bost astean behetako mikropilotatu eta estabilizatu egin behar da. Goikoa, berriz, mendia erori ez dadin aktuatuko dugu. Orioko Udalak ezin du beste aldera begiratu.

Egin dezagun atzera. Udazkenean hiru lur-jauzi izan ziren San Martin bailarako lurretan:



Itxaspe baserriaren ondokoa berehala konpondu zen eta Benta bideko bi obren erredakzioa bideratu zen lehenbailehen. Diru-laguntzen bila aritu gara ordutik: Urkomek 20.000 euro emango ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak urtarrilean Orion izan genituen konpondu beharreko zatiak ikusten. Orio eta Igeldo herrien arteko bidea denez, errepideari foru kategoria emateko eskatu zitzaion Foru Aldundiari. Ezetz, ordea. Ez dugu etsi, Aldundiaren emergentziazko diru-laguntzaren zain gaude.

Bilduk Kale Nagusiko bi etheen balioa Benta bidea konpontzeko erabiltzea proposatu du. EAJ alderdiak behin eta berriz aipatu du Gobernua remanentea xahutzen ari dela. Obra aurkeztu zen hirigintza batzordean urteko aurrekontuan sartzeko eskatu zuten. Hala egin da. Baina Ogasun batzordean ludoteka lehenetsi da. Gu ez goaz bide publikoak txukuntzeko jada eginda dauden hiru obrak, plan general berria, Botaleku proiektua edo Dikeko argiteria konpontzea zalantzan jartzera. Benta bideko konponketa ere lehentasuna da guretzat. Gure ustez, hobeto aztertu behar dena ludoteka proiektua da.

Ludoteka

Bilduk ez du proiektu honen alde egingo, proiektua zehaztu arte behintzat. Ludoteka deitzen denak zein zerbitzu eskainiko ditu eta zeinentzat? Zein adin tarte hartuko du? Zein behar ditu adin tarte bakoitzak? Osagarria izango al da gaur egun martxan dagoen Gaztelekuarekin? Edo estalitako leku bat nahi da egoteko? Zaindariak edo begiraleak egongo dira bertan? proiektu pedagogikorik izango al du proiektuak? Zein?

Ez ditugu galdera hauen erantzunak ezagutzen, eta ez goaz baietz esatera ezjakintasunetik. Are gehiago, krisi garaian lehentasunak markatu behar direnean. Ez da proiektua landu. Ez da herriko eragileekin aztertu. Beharra neurtuta al dago? Beste behin, gure herrian, lehenbizi eraikina egin eta ondoren zerbitzua erabakiko da. Hiru datu besterik ez ditugu ezagutzen: hauteskunde kanpaina batean agertzen zen marrazki bat, 200.000 euroko obra aurrekontua (nondik eta nola kalkulatu dagoen ez dakiguna) eta proiektuaren ustezko kokalekua. Informazio honekin bakarrik ez goaz baietz esatera.

Gure lehentasunak: Benta bidea eta herria txukuntzea. Behin eta berriz esango dugu, zerbitzu berriak sortu beharrean nahiko lan dugu daudenak txukun mantentzen. Bat egiten dugu udaleko idazkaritzaren txostenekin, ez gaude zerbitzu berriak irekitzeko moduan: nola emango zaio buelta urtero-urtero sortzen duen gastuari?

Hilerriko obra egin beharra dago, hau ere urgentzia da.

Arazo urbanistiko baten ondorioz zorra kitatu beharra, jasotako beste herentzia bat.



9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN ETA ORIOKO HERRI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Jon Agirresarobe zinegotziak hartzen du hitza, Bilduren izenean, eta honako hau adierazten du, hitzez hitz:

Ikastolaren hitzarmenaz

Hitzarmen erredakzio berriak hiru helburu ditu:

Hitzarmenari berezko izaera ematea: aurreko legealdiaren amaieran sinatu ziren hitzarmenak. Hezkuntza jarduera osagarriak laguntzeko diru-laguntza forma eman zitzaien. Baina zentro bakoitzaren beharrak oso ezberdinak dira eta ez da posible guztiek erredakzio berbera izatea.

Lehen ere Orioko udalak hitzarmena izan du Ikastolarekin. Gaur egun 700 ikasle eta 400 familia inguru daude Orioko Herri Ikastolan. Historikoki Orioko Udalak diruz lagundu izan du Eusko Jaurlaritzaren kontzertazioek kubritzen ez duten beharra. Ados al gaude, Orioko Udalak hartu behar al du hau bere gain? Bai edo ez. Hori da garbi erantzun beharreko galdera. Guk bai.

Hitzarmenaz aparte jarduerak egiteko aparteko diru-laguntzak jasotzen zituen Ikastolak urtez urte. Guztiak partida bakarrean bildu ditugu. Orioko Ikastolaren laguntza hitzarmenera mugatuko da hartara. Ez da besterik izango, festak salbuespen.

Herrian sustraituta dauden taldeak laguntzen ari gara. Diru laguntza egonkortu diegu Txurrunuski, Karkara, Orioko Arraun Elkarteari eta Ikastolari, esaterako. Hauek guztiek hitzarmena dute laugarren kapitulutik.

Zaraguetari zergatik ez?

30.000 euro jasotzen ditu Zaraguetak, oso-osorik jardueretarako.

Zaraguetaren kasuan laguntzak baldintza duinetan lagunduta daude zentroko ezohiko jarduera guztiak. Aurtengo zuriketa horren adibide, ez noa detaileak ematera.

Zaraguetak behar izan duenean eman diogu hitzarmenaz kanpoko laguntza:

Eta laguntza hauen kasuetan Orioko Udalak ere ez zuen eskumenik:

- *Inbertsioan DBHrako gelak egiten lagundu genuen.*



- DBHko garbitasuna Hezkuntza sailaren ardura da, baina ez du dena ordaintzen. Zati bat Oriko Udalak ordaintzen du.

Udalari ez dagokio

Ez da bere eskumena, baina udalaren aukera da. Bi irakurketa:

1.- Eskumena duenak lagundu dezala. Eusko Jaurlaritza, hasi lanean.

2.- Ez da kasu bakarra eskumenez kanpoko ardurak hartu dituguna.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzaileak 2014ko martxoaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

1.- ONARTZEA Oriko Udalaren eta Oriko Herri Ikastola kooperatiba elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari lankidetzaz-hitzarmen hori sinatzeko, Oriko Udalaren izenean.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJ talde politikoaren izenean, alkateari galdera egiteko Udalak 2014ko udaldirako eskaini dituen lanpostuei buruz; zehazki, kontu honi buruz eskatzen dizkio azalpenak: udal kanpineko zaindaritarako 4 lanpostu eskaini ziren hasieran, baina gero planteamendua aldatu egin da eta 3 zaindari lanpostu eta arotz lanpostu bat eskaini dira.

Alkateak behar bezala erantzuten dio galderari eta kontu hori dela-eta gertatutakoa azaltzen die bertaratuei, zehaztasunak emanez.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,